

## 'Oroimenaren xaflakortasunaz'

Paloma Rodríguez-Miñambresek Ereinen argitaratu du orain Bilboko Blas de Otero Saria jaso zuen *Oroimenaren xaflakortasunaz*. Idazlea (Barakaldo, 1972) EHU'n irakasle da, eta Ernestina de Champourcin poesia lehiaketa irabazi zuen *Desoseguaren gorazarra* argitaratu zuenean 2013an. Iradokizuna eta gai-batasuna dira *Oroimenaren xaflakortasunaz* honen bertuterik aipagarrienak. Autoreak zenbait mito klasiko erabiltzen ditu, egunerokotasun antiheroiarekin elkartuz.

Munduan zehar bidaia eginez osaturiko mapa da *Liburua*, haurtzaroko memoriarekin uztartuz. Mundua konprenitzeko eta bertan kokatzeko bidezidorrak aurkituko ditu irakurleak, bizialdiaren aroak arakatzu, bihurtuz memoriaren mapetan barrena, horren guztiaren xalagarritasuna agerian. "Eros eta Tanatos/ nirekin haserre-araziz./ poesia egiten dut/ edozertaz./ edozerekin./ maite ditudanentzako/ esangaitzaz./ gorroto ditudanentzako/ esan ezinez".



## 'Mundutik mundua'

Karrelle Jaiok esana da lan honen inguruan: "Orduan konturatu naiz Eduren testuak irakurri bitartean barruan sortu zaidan sentipen bat argitu didala alabak. Irakurketarekin barruan sortzen ari ziztzaidan argazkia errebelatu egin du nahi gabe, berriz modan jarri diren Polaroid horietako batekin bezala. Zergatik iruditzen zaigu handia, zergatik maiuskulaz idatzi beharrekoa, gure egunerokotik urrun dagoena, azkenean ume baten eskuetan batzen bada? Eta zergatik deitzen diogu mundu txikia gure inguruan dagoena? Urrun dagoena baino askoz handiagoa ikusten badugu? Bere mundutik idatzi du Eduk, munduaz. Eta idazlearen eginbeharra hain zuzen hori dela gogorarazi digu, gertu izanagatik txiki deitzen diogun horren berri ematea dela, alegia, idazleak mundu handi eta unibertsalari buruz hitz egiteko duen modu eraginkor bakarra". Edu Zelaieraren *Mundutik mundua* (Pamiela) zutabegile gisa egindako lanarekin dauka lotura.



# Bigarren seihileko zinema BilbaoArten

Aurreratu genizuen orrialdeotan euretan eguazteno ari zirela BilbaoArteko Art House Zineman -Urazurrutia kaleko 32.ean- filmak eskaintzen jatorrizko bertsoan eta euskarazko azpitoluekin, publiko anitz batentzat.

Hemen urtea amaitu orduko ikusgai egongo dena



The swell season urrian botako dute

Doan -aretoa bete arte- ikusi ahalko dira areto komertzialetan ibilbide laburra izan ohi duten film hauek. Denak iluntzeko 19:00etan botako dira.

### Ekainak 5:

#### 'Arazo pertsonalak'

Nazaretan urte luzez elkarrekin bizi izan diren senar-emazteak errutinan sartuta daude. Mugaren beste aldean, Ramalan, euren seme Tarekek ezkongabe izaten jarraitu nahi du, alaba umea izateko zorian dute haren senarrak filma batean aritzeko papera lortzen duen unean eta bitartean, familiako amona burua galtzen hasi da... Egoera politikoa gatazkatsua baten erdian, fribolitate eta ametsen artean, batzuk alde egin nahi dute eta besteek gelditu baina guztiak dituzte hainbat afera pertsonal konpontzeko.

### Uztailak 3:

#### 'Ma vie de Courgette'

Frantsesa du berezko hizkuntza, "kuiatxo" itzul daitekeen istorio eder hau. Claude Barrasek zuzendutako Suitzarren eta frantziarren arteko film hau mutiko baten inguruan hasten da baina gai unibertsalera egiten du gero. Izan ere, Courgette edo Kuiatxo izen arraroa baita bederatzi urteko mutiko baten izena, eta joan beharko duen harreraretxera lagunduko dio, bere adineko beste mutiko ba-

tzuekin bizitzera. Hasieran, ahaleginduko da giro arrotz eta kontrako horretan moldatzen, baina Raymond-en eta bere lagun berrien laguntza behar izango du besteak maitatzen eta haiengan konfiantza izaten ikasteko. Gilles Paris-en *Autobiographie d'une Courgette* nobelan oinarrituz *stop-motion* animazioa paratu dute, eta ikusgai izan den zinemaldi guztietan izugarriko arrakasta izan du, bai publiko zein kritika aldetik.

Herriko 1989ko txapela eskaini zion "jantzi gabe joan zen/ Fernando Eireri".

### Abuztuak 7:

#### 'Fatima'

Philippe Fauconen lan bikain hau frantsesez eta arabieraz filmatu zen. Fatima aljeriarra da, dibortziatua dago eta Frantziara bizi da bere bi alabekin: Souad, nerabe bihurria, eta Nesrine, medikuntza ikasten hasi berria den hemezortzi urteko gaztea. Fatimak ia ez du frantsesez hitz egiten, eta hori oso oztupo handia da beraren eta bere alaben arteko harremanerako. Alabak dira Fatimaren bizitzan garrantzitsuena eta haietaz oso harro dago. Ala-

bei ahalik eta etorkizun onena emateko, eguneko ordu asko garbitzaile gisa lan egiten pasatzen ditu. Egun batean istripu bat du eta denbora batez atse den hartu behar du. Denbora hori Souadi eta Nesrineri frantsesez esan ezin dien guztia arabieraz idazteko baliatzen du.

### Irailak 4:

#### 'Udako amodio bat'

Catherine Corsiniren filma, Frantzia eta Belgikaren arteko produkzio lana, 1971. urtean dago kokatua. Delphine basearitar neska gaztea Parisera doa familiaren menpetik ihes egin eta ekonomikoki emantzipatu nahi duelako. Carole paristarra Manuelek bizi da hirian eta feminismoaren printzipioak babesten ditu sutuki. Delphine eta Carolek elkar ezagutuko dute eta euren arteko amodio-historiak bizitza aldatuko die.

### Urriak 2:

#### 'The swell season'

Nick August-Perna, Chris Dapkins eta Carlo Mirabella-Davis-en lan honen izenburua zelan izuli? *Puztutako sasoi* kritikari asko gustatu zaion dokumentala da. Ingelesez ekoiztia, Glen Hansard eta Markéta

Irglová-z ari da. Biek ala biek *Once* filmean antzeztu zuten elkarlan musikala Oskar sarietan gailendu zen. Baina kameraren atzean, Glen eta Markétaren erromantzea egia bilakatu zen, bere argi ilun guztiak. Dokumental musikala hiru amodioak eta ospeak sortu bozkario eta nahasmenduari egiten zaion begirada intimoa da.

### Azaroak 6:

#### 'Pink saris'

Kim Longinotok hindiz filmatua, *Pink saris* sentsibiltate handiko lana da. *Divorce Iranian Style* (1998), *Sisters In Law* (2005), *Hold Me Tight, Let Me Go* (2007) eta *Rough Aunties* (2008) zuzendu dituen zuzendari gailen honek Sampat aurkeztu digu oraingoan, beste asko bezala, ezkontzera behartu zuten neska, eta tratu txarrak eta ustiapena bizi izan zituen senarraren familiarengandik. Haiengandik ihes egin zuen eta orain urteak daramatza emakumeen eskubideen aldeko borrokan, Uttar Pradesh eskualdean, Indiako iparraldean. Kasu bera da Rekharena: hamalau urteko neskatila, "ukiezina", kasta baxuenekoa izateagatik ezkontzen utzi ez dien familia bateko gizon batek haurdun utzitakoa. Baita Renurena ere: hamabost urteko neskatila, senarrak ezkon-senideen etxean abandonatutakoa, haiengandik tratu txarrak eta erasoak jasotakoa.

Igor Estankona



**Doan -aretoa bete arte- ikusi ahalko dira areto komertzialetan ibilbide laburra izan ohi duten film hauek**